



LESAKA

Alkateordeen izendapena

2016ko abenduaren 14an Lesakako alkate jaunak honako ebazpen hau eman du, bertzeak bertze:

2015eko ekainaren 17ko 243/2015 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenak alkateordeen izendapena egin zuen. Orain beharrezkoa da aldaketa batzuk egitea.

Hori dela eta, 1986ko azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onartutako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduaren 46. artikulua ezarritakoa kontuan hartuz, zera erabaki dut:

Izendapen hauek egitea:

- Lehendabiziko alkateordea: Pedro Apezteguía Alzugaray
- Bigarren alkateordea: Iban de Prado Etxepeteleku
- Hirugarren alkateordea: Mainer Arrieta Tapia

Lesakan, 2016ko abenduaren 21ean.

Alkatea,



Jose Luis Echegaray Andueza